



1965ko ekainaren 29an
Gipuzkoako lehen kopa
irabazi zuen
Euskalduna taldeak

2015eko uztailaren 3a, 447 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

EUSKALDUNA FUTBOL TALDEA

Pilotarien arteko elkarbizitza sustatzeko egonaldia Goizuetan

Gazteku pilota taldeak gurasoekin elkarlanean udako lehen egonaldia antolatu du Goizuetan; pozarren itzuli dira.

Sei begirale, hiru arduradun eta hogeita hiru gaztetxo, guztiak Gazteku pilota eskolakoak, Goizuetan izan dira uda honetarako antolatu duten lehen egonaldian. Andoni Alvarez pilota eskolako arduradunak egonaldia antolatzearen arrazoiak azaldu dizkio Aiurri, "guraso batzuren eskaera izan zen. Urte osoan zehar frontoian egiten dugun lanarekin oso gustura daudela eta, kanpaldi modukoa faltan botatzen zutela adie-



Guraso, begirale eta pilotari gazteak Goizuetan.

razi ziguten. Gaztelekukoa familia modukoa da, eta izaera horri lotuta ia zer egin zitekeen galdetu ziguten. Elkarbizitza moduko jardunaldiak izan dira". Oier

Mendizabal pilotari ohiaren laguntzarekin, Goizuetan herri egokia zela pentsatu zuten. "Pilotaren jokamolde ezberdinak landu ditugu, profesionalen bisita


Pilota eskolako lehen egonaldia 9-13 urteko gaztetxoei begira antolatu dute, eta ia ziurra da etorkizunean ekimenak segida izango duela

jaso dugu baina herrian bertan errekan egoteko aukera izan dugu. Eta, bide batez, hango hurrekin harreman onak egin ditugu. Alkatea eta zinegotzia azken egunean esker ona adieraztera etorri zitzaizkigun. Eurentzat ere pozgarria izan da".

Lehen egonaldia 9-13 urtekoentzat izan da, eta etorkizunean ekimenak segida izango du.

[KIROL ALBISTEAK, 11.ORRIALDEA]


Mikel Ibargoiern urnietarrari saria



Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan urnietarra Aipamen Bereziarekin saritu zuten, Gaur 8 hedabidean emakumezko kirolarien inguruko lan sortagatik.

[URNIETA, 2.ORRIALDEA]

Irunberri elkarteari babes zabala



Aurreko asteburuan egun osoan zehar luzatu ziren Irunberri elkartearen aldeko babes ekintzak.

[ANDOAIN, 5.ORRIALDEA]

Odol ematea uztailean

Uztailaren 7an Andoainen eta 13an Urnietan, ohiko tokietan.

[AGENDA, 12.ORRIALDEA]

Bigarren eskuko azoka Andoainen

Larunbat honetan, uztailak 4, goizeko 10:00etan hasi eta arratsaldeko 14:00ak arte, Zumea plazan.

Birziklapena eta berrerabilpena sustatu asmoz, larunbatean "Zaharrak berrituz" azokaren edizio berria egingo da Zumea plazan. Antolatzaileek aurreratu dutenez, "hogeitamalau

postu egongo dira, zeinetan, era guztietako bigarren eskuko objektuak salduko diren".

Ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzeko asmoz, bestalde, mahaietako batean "Au-

keran, bertakoak" eskuorriak banatuko dituzte, lorategi zein mendian landatu daitezkeen zuhaixka eta zuhaitzekin batera.

[AGENDA, 12.ORRIALDEA]

Kaletxikiko eta Goiburuko auzotarren desafioa, igandean

Kaletxikiko jaiak ostiralean hasiko dira, igandera bitarte. Herri kirol desafioak ikusmina sortu du.

Ontza eta Batzokia elkarten arteko desafioen lekukoa auzokoen artekoak hartuko du aurtengoan. Kaletxikitarrek auzotarren babes jasoko badute ere, goiburuarrak gogotsu daude. Giro ederra espero da desafioan, igande arratsalde honetan. Ohi bezala, Kaletxikiko

festak Kandidorekin eta Txikitxoekin hasi eta amaituko dira. Kandidoren paperean Emilio Iturriondobeitia auzotarra ari tuko da. Pozarren dagoela adierazi dio Aiurri, herrikide eta festazale guztiei Kaletxikira agertzeko dei eginez.

Hitzordu interesgarri gehiago izango da asteburuan, besteak beste, herri krosa eta sargardo dastaketa.

Andoaingo auzuneetan jaiak nagusituko dira hurrengo asteetan.

[ANDOAIN, 6-7.ORRIALDEAK]



Uztailak 5, igandea. 17:00. Herri kirolak: Kaletxikiko eta San Esteban auzoetakoak aurre. Harri jasotzea, txingak, ingudea, lokotzak, zaku eta lala karrera eta pirrinka.

'Urnieta 400' ospakizuna uztailaren 12an

Urnietak herri izaera lortu zuela lau mende beteko dira uztailaren 12an. Data seinatua Udala ospakizuna antolatzen ari da. Musika eta dantza ez dira faltako.

Odol-emaileen deialdi berria uztailaren 13rako

Udan urte osoan baino gehiago behar izaten da. Horregatik garrantzitsua da udan ere odola ematea. Hurrengo hitzordua uztailaren 13an izango da, 18:30etan hasita anbulatorio zaharrean.

'Ongietorria baserrira' ekimena ostiral honetan

ENBA sindikatuaren eskutik, asteburu honetan ospatuko den ekimenean 250 pertsonak hartuko du parte, ia zoko kopurua nabarmen handituz. Baserrien ate irekietako jardunaldien pareko izango da, Gipuzkoako hamasei baserrietan burutuko dena.

Tartean dira Urnietako Adarrazpi (ardiak-gazta/mamia) eta Eula (sagastiak-sa-

gardo) baserriak. Sindikatua pozarren dago ekimenak izan duen erantzunarekin, "baserrietako ateak zabalduz, baserri mundua eta elikagaiak ekoizteko era gizarteratzea helburu duen ekimena sekulako arrakasta izaten ari da eta honenbestez, antolatzailea den ENBA nekazal sindikatuak argi du datorren urtean, hirugarren edizioa izango dela".

Txapela berria Aitor Aldunberri gaztearentzat

Kadete mailako pilotaria eskuz banakako Ekialde txapelketako finalean garaile izan zen, Azkoitiko Gurean Lizarazu hondarribiarra 22-16 gaindituz. Denboraldi bikaina darama urnietarrak, hiru

finalera iristea lortu eta hiruretan garaile izan delako. Aurten trinketea binaka irabazle izan da, baita Gipuzkoako eskuz banakakoan ere. Bakarka lortu du hirugarrena, Ekialde txapelketan.

Udan euskara ikasten jarraitzeko aukera

Hernanialdeko AEKk oharra igorri du, eskaintza iragarritz: "Udan ere ikastaroak eskaintzen ditugu". Azterketa prestatzeko taldeak:

-3. maila: goizez, Hernanin.
-1. maila: arratsaldean, Astigarragan.
Maila guztiak lantzeko Autoikaskuntza aukera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan aipamen berezia jaso du

Sari garrantzitsua Mikel Ibargoien kazetariari



Mikel Ibargoien urnietarrak aurreko larunbatean Ana Carrere Andoingo alkatearen eta Patxi Baztarrika Jaurlaritzako sailburu-ordearen eskutik jaso zituen saria eta oroigarria, Bastero kulturgunean egin zuten sari banaketa ekitaldian.

Mikel Ibargoien urnietarrak euskal kazetarigintzaren sari ospetsuenetakoa jaso zuen

Andoainen, Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako aipamen berezia hain zuzen. ETBn lanean aritu ondoren, Info 7 irratiari eta Gaur 8 hedabidean emakume kirolarienguzuzen du, eta bere lan horregatik saritu dute. Garazi Kamio saioaren aurkezleak atariko bikaina eskaini zion urnietarri, epaimahaiaren erabakia irakurri aurretik: "Emakumeok kirol profesionalean bagabiltza, erabat desagertzen gara besteen begietara. Hori besteen begietara da, sarituak eduki ireki baititu gu guztion begiak. Komunikabide batzuetako letrak lausotu egiten dira, ordea, emakumeen izenak agertzen direnean. Euskal Herrian izan badugulako AEBko futbol ligan atezaina den emakumea. Eli Sarasola du izena, eta hori denok dakigu ezta? Ai Eli, gizonetako bazina! Eskerrak norbaitek begiak irekitzen laguntzen duen". Jarraian, Arantza Aguadok epaimahaiaren idazkariak, sarituaren merituak irakurri zituen: "Osolan interesgarria, ikuspuntu desberdinetik jorratua, mahai gainean jartzen duena gaiaren konplexutasun osoa. Emakumeak elkarriketatuz adierazten du aldi berean nola eraman ditzaketen aurrera beren kirolari, ikasle, langile, familia eta emazte bizitzak oraindik ere matxista samarra den gure gizartean".

"Gaur gaurkoz emakumezko kirolariak hedabideetan beti geratzen dira bigarren, hirugarren, laugarren edota bostgarren plano batean"

"Amets potoloen multzo horretan sartu nuen Rikardo Arregi sari hau jasotzea. Bertara aurkeztea erabaki nuenean nire ametsa irabaztea zen"

Eta ikusleen txalo artean urnietarra oholta gainera igo zen, saria jasotzera: "Epaimahaiari eskerrak eman nahi dizkiot, niretzat oso pozgarria da. Atzetik egindako lanak fruituak ematen dituelako eta, zentzu berean, etorkizunean lanean jarraitzeko indarra ematen duelako. Duela gutxi ametsi buruz idatzi nuen eta hori gogora ekarri nahiko nuke. Idatzi horretan nioen guk ametsen birtartez zorientasuna bilatzen dugula, gure desioen sorburu ere badirela aipatzen nuen. Ilusio horrek piztuta ametsak errealitate bihurtzen saiatzen gara. Ametsak mota askotakoa daude. Txikiak izan daitezke, estresak jota gaudenean adibidez lagunekin asteburu pasa joatearekin ametsa. Eta gero badaude beste amets potoloago batzuk. Potoloen multzo horretan sartu nuen Rikardo Arregi Kazetaritza Sari hau jasotzea. Bertara aurkeztea erabaki nuenean nire ametsa irabaztea zen, eta ametsa libre denez, sari nagusia irabaztea amesten nuen. Ez da posible izan baina epaimahaiaren sari berezia jaso dut eta esan dezaket, beraz, ametsa neurri bate-

an gauzatu dudala. Oso pozik nago, Gaur 8 hedabideari ere eskerrak eman nahi dizkiot. Gai berari buruz astean behin saioa eskaini dugu Info 7 irratiari eta helburua berdina zen: Emakume kirolariari behar bezain besteko protagonismoa eta ahotsa ematea. Gaur gaurkoz emakumezko kirolariak hedabideetan beti geratzen dira bigarren, hirugarren, laugarren edota bostgarren plano batean, erabat gutxietsita, nahiz eta haien lorpenak geroz eta handiagoak direla ikusi. Hedabideotan lan egiten dugunok badugu erantzukizun hori, emakumeek egiten duten lan hori itzaletik argitara ateratzen".

Bukatzeko, gonbite zehatza luzatu zuen: "Berdintasunaren bidean nor bere alea jartzea garrantzitsua da. Eta horretarako proposamen bat egingo dizuet: Gararekin banatzen den Gaur 8n jarraituko dugu emakume kirolarienguzuzen gaineko erreportajeak eta elkarrizketak jorratzen eta Info Zazpiko kirol leihoa ere irailan itzuliko da. Zuen aletxoak jartzeko, badazizue, irrati piztu, Kirol Leihoa entzun eta Gaur 8ko artikuluak irakurri".

HIRU HILABETEZ KOOPERAZIO LANAK BURUTZEKO ETIOPIA UTOPIA ELKARTEAK BEKA BAT ESKAINTZEN DU

Etiopia gertutik bizitzeko aukera paregabea

Urnietago gazteek Wukrora kooperante gisa joateko aukera dute udan, Urnietako Udalak eta Misioen Batzordearen arteko hitzarmenari esker. Uztailaren 17an amaituko da izena emateko epea.

Iaz Amaia Jauregi urnietarra izan zen bolondres lanetan aritu zena eta esperientzia "ahaztezina" izan zela aitortu du: "Esperientzia ederra izan zen; bertatik dena positiboa ekarri nuen".

Elektrizitateko goi mailako zikloa ikasi zuenez, elektrizitate instalazioak hobetzeko programa baten baitan joan zen Wukrora. Hala ere, bertako instalazioak ikuskatzeaz gain, bestelako proiektu batzuk ere ezagutu zituen. Esaterako, haurrei ingelesa irakasten eta emakume alargunei zuzendutako mikrokreditu batean lanean aritu zen. "Proiektu bat baino gehiago ezagutzea izan zen onena; oso aberasgarria baita ahalik eta behar gehienei erantzuna ematen saiatzea", azaldu du.

ESPERO ZUENA BAINO ESPERIENTZIA HOBEA

Profesionalki eta, batez ere, pertsonalki garatzeko aukera eman zion bizipen honek Amaia. "Inor ezagutzen ez duzun toki batera joandakoan, besteengandik asko ikasten duzu; baina baita zure burua-rengandik ere. Nire burua hobeto ezagutu nuen", azpimarratu du.

Esperientziatik zer nabarmenduko zukeen galdetuta, Amaia ez da gai gauza bakar bat aukeratzeko. Izan ere, guztia "oso positiboa" izan zela dio. "Banekien esperientzia ona izango zela eta banuen bertako jendea ezagutzeko gogo; baina bertan bizi nintzela, konturatu nintzen zenbaterainokoa den beraiekin izan nuen harremana. Askok eman zidaten eta bizipen guztiak izan ziren izugarriak niretzat: hasieratik amaieraraino".

Horrez gain, etxean zuena gehiago baloratzera iritsi da. "Topiko bat da, baina egia da hemengo bizimodua beste begi batzuekin ikusten dudala orain", aitortu du. Wukron zegoenean, gertuko eta familiarikoen hutsunea nabaritu zuen, eta itzulitakoan, hemengo baliabideak esker handiz hartu zituen: "Ura, janaria.. denetik dugu hemen eta ez gara konturatzen hori izugarriko altxorra dela".



"Bakarrik joan nintzen, baina banekien atzean jendea laguntzeko prest banuela", dio Amaia Jauregik.

TALKA KULTURALIK GABE

Kulturen arteko ezberdintasunak nabariak direla dio Amaiak, baina ez zuen aparteko arazorik izan. "Lehenengo bistan, ezberdinak gara beraiantzat. Azal zurikoak izanda, oso identifikagarriak gara eta ezinezkoa da hori saihestea". Hala ere, haurrekin erlazioatzea oso erraza dela eta helduekin ere harreman bikaina lortu zuela azpimarratu du.

Hizkuntzari dagokionez, gehienbat ingelesa erabiltzen zuen komunikatzeko, baina bertako hizkuntza ere ikasi zuen. Tigrigneraz hitz gako batzuk ikasi zituen, eta aurtengo hautagaiek gauza bera egin beharko luketela uste du. "Hitz gako batzuk ikastea nahikoa da merkatuan erosketak egiteko eta beraiek integrazten saiatzen zarela ikusteko".

FUNDAZIOAREN BABESA UNEORO

Amaia Jauregi bakarrik joan zen Etiopiarra, baina inongo momentutan ez zuen beldurrik sentitu. "Etiopia Utopia fundazioaren babesa izan nuen era-

bat. Bakarrik joan nintzen, baina banekien atzean jendea laguntzeko prest banuela". Laguntza hori izanda, lasai joan zela adierazi du; bakarrik hegazkineko bidaia soilik egin zuelako. Bertara iritsitakoan, beti izan zuen nor edo nor etxean bezala sentitzen laguntzeko.

URNIETARRAK HAUTAGAI

Urnietan bizi diren gazteei zuzendutako beka da eta martxan dauden proiektuaren eta aurkeztu diren hautagaien ara-

bera egingo da aukeraketa. Dena den, perfil egokiena lan fisikoak egiteko gai direnena dela uste du Amaiak. "Iturginak, elektrizistak... tankera horietako langileen beharra izango dute. Irakasleak ere behar izaten dituzte, baina praktikak egitera joan ohi dira hara eta ez dute gehiagoren beharrik izaten". Hala, Urnietako Salesiarretan ikasten ari direnak hautagai egokiak direla deritzo, "eskuzko lanak eta fisikoagoak egiteko gai direlako".

"Topiko bat da, baina hemengo bizimodua beste begi batzuekin ikusten dut orain"

Horrelako aukera izatea izugarria dela uste du: "Urnietarrekin ezin dute aukera hau pasatzen utzi". Hori esanda, jendea parte hartzera animatu du.

DEIALDIAN PARTE HARTZEKO:

Kurrikuluma aurkezteko epea uztailaren 17an amaituko da. Edozein zalantza izanez gero, Jose Ramon Jauregirekin harremanetan jarri 943 331 346 telefonora deituta, 8:00-13:00 eta 17:00-19:00 bitartean. Honako baldintzak bete beharko dituzte hautagaiek:

1. Unibertsitateko titulua izatea, Lanbide Heziketa edo lanbide batean esperientzia (iturgina, igeltseroa, elektrizitate...).
2. Komunikatzeko oinarriko ingeles maila izatea.
3. Urnietan bizi edo jaio izana.
4. Lanerako eta ikasteko gogo.

Izena emateko interesatuek kurrikuluma gazteinformazioa@urnieta.eus postara bidali behar dute, edo Idiazabal Kanean dagoen Gazte Informazio Bulegoan utzi. Etiopia Utopia fundazioaren webgunea: www.etiopiautoopia.org.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA 2015

Kazetaritzaren ale onenak

Udaren hasieran euskal kazetaritzan erreferentziazkoa den sari banaketa ekitaldia egin ohi da Basteron, Rikardo Arregi kazetari eta euskaltzale handiaren izena daramana.

XXVII. edizioari dagozkionak aurreko larunbatean banatu zituzten, eta epaimahaiaren arabera “ezinbestekoa da azpimarratzea aurtengo lanek izan duten kalitatea”.

Aurten epaimahaia Esti Mujika zinegotziarekin batera honako adituek osatu dute: Allainde Boutin, Idurre Eskisabel, Goio Arana eta Marijo Deogracias. Aurtengo lanen kalitatea nabarmendu dute, “euskarazko kazetaritzaren aberastasunaren eta sasoi onaren adierazle”. Hori dela eta, ohiko diren hiru sariez gain laugarrena banatzea erabaki dute.

Edizio honetan, gainera, nazio hedapeneko eta tokian tokiko hautagaitzak buruz buru izan dira lehian. Horren isla aurtengo sari nagusien jatorria. Sari nagusia Goiena tokiko hedabidean argitaratu zen. Kazetari berriarekin saritu dutena, aldiz, Berria egunkarian. Saritutako generoak, gainera, ez dira paperezko ediziora mu-



Mikel Arregi Rikardoren anaia, Ana Carrere alkatea, Iñigo Astiz, Samara Velte, Julen Iriondo, Mikel Ibargoien eta Patxi Baztarri-ka Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza politikarako sailburu-ordea.

Edizio honetan nazio hedapeneko eta tokian tokiko hautagaitzak buruz buru izan dira lehian

gatu. Multimedia lana, esaterako, erabakiorra izan da lehen saria banatzeko garaian.

Lehiaketak pizten duen interesa aditzera eman zuen epaimahaiak, parte hartze handia izan baita. Denera, 31 lanen artean egin behar izan dute aukeraketa. Kantitatean gora eta kalitatea ziurtatua, euskal kazetaritzak garai oparoa bizi duela esan daiteke.

Eskualdera begira, Mikel Ibargoien urnietarrak epaimahaiaren sari berezia jaso zuen.




EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA
MIKEL IBARGOEN

Saritutako lana:
Emakume kirolarien inguruko saila, Gara egunkariarekin larunbatero banatzen den Gaur8 hedabidean.
Sariduna:
Mikel Ibargoien (Urniet).



EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA
INIGO ASTIZ

Saritutako lana:
Kantuan diren lekuak izeneko erreportajeak, iazko abuztuan Berriarako egin-dakoak.
Sariduna:
Iñigo Astiz (Iruñea).



KAZETARI BERRIA SARIA
SAMARA VELTE

Saritutako lana:
Iazko irailean Berria egunkarian Eskoziako erreferendumari buruz argitaratutako artikulu sorta.
Sariduna:
Samara Velte (Zarautz).



SARI NAGUSIA
JULEN IRIONDO

Saritutako lana:
2015eko maiatzaren 5ean Goienan ipinitako Jon Salaberri izeneko ikus-entzunezkoa.
Sariduna:
Julen Iriondo (Oñati).

Gerra hura zergatik?

Lekukotzak bildumako 9 eta 10 zenbakiak lehenengo karlistaldiari buruzkoak

Bibliografia historiko zabal baten azterketaren ondorio, Jon Unanuek idatzia.

Dagoeneko salgai, Andoainen eta Urnietan ohiko saltokietan 5 euroko prezioan

1. Karlistaldia (I)

1. Karlistaldia (II)

EKUKOTZAK

9

10

ELKARTASUN EGUNA EKAINAREN 27AN

Irunberri elkarteari babes adierazteko ekitaldi sorta

Irunberri elkarte zabalik nahi dutela aldarrikatzeko, dozenaka lagunek parte hartu zuten aurreko larunbatean deitu zituzten babes ekitaldi ezberdinetan.

Auzitegi Gorenak herrikoak itxi eta estatuaren esku geratzeko erabakia hartu badu ere, agindu hori noiz eta nola betearaziko duten ez dago jakiterik.

Irunberriko kide eta langileekin batera, Andoaingo elkarte, taberna eta koadrilen ordezkariak agerraldi jendetsua egin zuten, larunbat goizean.

IRUNBERRI LIBRE! ADIERAZPENA

“Pasa den astean jakin genuenez, Herriko tabernen auzia delakoan, Auzitegi Gorenak hainbat kartzela zigor berretsi ditu ezker abertzaleko hainbat kideren aurka, 107 herriko tabernen itxiera agintzarekin batera. Zigortutako pertsonen artean aurkitzen da Juani Lizaso andoaindarra, eta konfiskatutako tabernen artean, berriz, Irunberri kultur elkarte.

Estatuak euskal mugimendu independentista zapuztu nahi duela ez da ezer berria, eta eraso berri hau ahalegin horretan beste urrats bat besterik ez dugu. Historian zehar hainbat eta hainbat tresna baliatu dituzte ezker abertzalea indargabetu eta ahultzeko asmoz, independentziaren aldeko mugimendua zapuzteko asmoz. Indar parapolizialak, salbuespeneko politikak, alderdien legea, ideien ilegalizazioa... hamaika izan dira eraso mekanismoak, eta guztiek, esan bezala, helburu berbera izan dute: Euskal Herriak etorkizunera begira zituen/dituen asmoei zango-traba egitea.

Erasoak mugimendu independentista zapuztea helburu badu ere, zigorra herritar orori ezartzen zaio. Andoaingo aniztasun kulturala da galtzailea, herritar ororen askatasun politikoak kokan jartzen dituelako. Irunberri andoaindar guztiei zabalik dagoen gunea da, gainontzeko elkarteekin zein bizilagunekin elkarlanean aritu den eta aritu nahi duen elkarte.

Irunberri ezkertiar eta abertzale ororen bilgune izateko helburuz jaio zen. Horretan aritu da azken hamasei urteetan, hamaika ekimen antolatuaz: mendi martxa, erakuske-



Dozenaka lagun bildu ziren Irunberri elkartearen kanpoaldean.

ta, kontzertu, haur jolas, garagardo feria, antzerki, erreezital, zine, hitzaldi, sorgin gau, ihauteri, pilota txapelketa eta abar luzea.

Zerrenda luzea, oso luzea, Irunberri Kultur Elkartearen ekinbidea, bizirik dagoen herriari bizia ematea izan baita, abertzaletasunetik eta ezkerretik, herritar ororen bilgune eta topaleku izanez.

“Irunberri andoaindar guztiei zabalik dagoen gunea da, gainontzeko elkarteekin zein bizilagunekin elkarlanean aritu den eta aritu nahi duen elkarte”

Hauek guztiak herrigintzatik egin ditugu, bazkide eta norbanakoen lan isiletik jaio zen


Irunberri, eta horrela jardundu azken hamasei urte hauetan... hori izan da hona ekarri gaituen filosofia eta horixe izango da aurrerantzean ere, eraso guztien gainetik, aurrera eramango duguna.

Azkenik, hemen elkartutako guztiok azken eraso salatu eta Irunberri, zein auzian kalte-tutako guztiei gure babes esakaini nahi diegu”.



Babes katea irudikatu zuten larunbat arratsaldean.

HITZORDU UGARI




Kantujira taldea.

Agerraldia amaitu ondoren, kantujira taldea kalez kale aritu zen euskal doinuekin giroa alaitzen. Bazkaltzeko ordua iritsi bitarte kantari aritu ziren. Kale Nagusian bazkaria egin zuten, itzalpean. 120 lagunek parte hartu zuten.



Herri bazkarirako 120 lagun elkartu ziren Kale Nagusian.



Bazkaldu ondoren kalea txukun.

DESAFIOA IGANDE HONETAN KALETXIKIN, ARRATSALDEKO 17:00ETAN HASITA

Goiburuko eta Kaletxikiko auzokideen arteko desafioa

Bi auzoetako ordezkariak herri kirol ezberdnetan neurtuko dituzte indarrak: lokotzak biltzea, harria jasotzea, ingudea, pirrinka, txingak, laia eta zaku karrera.

Desafioak ikusmina piztu du bi auzuneetan eta herri osoan, oro har. Jokoan afaria izango dute, eta dagoeneko errebantxa jokatzea pentsatzen ari dira.



Azken prestaketa saiora hurbildutako ia guztiak goiburuarrak ziren.



Prestaketa saioa ikusi eta gero, goiburuarrak gogotsu daude.

Kaletxikitik, honako kirolariak agertuko dira desafiorako prest Berrozpeko jolas tokian: Juanjo Agudo, Gorka Mateo, Iñaki Irulegi, Josu Otamendi, Amaia Lakalle, Irati Loiarte, Iñaki eta Imanol Etxeberria anaiak eta Mikel Irigoras.

Goiburutik, berriz: Miren, Estebe, Maitane eta Jon Lopez

de Munain anai-arrebak, Gara-zi eta Imanol Usandizaga anai-arrebak, Ion Beloki eta Ane eta Ander Zabala anai-arrebak. Mistoa izango da lehia, ikus daitekeenez.

Azken bost urteetan Batzokia eta Ontza elkartearen arteko indar neurketak burutu dira. Lau irabazi zituen Batzokiak, bakarra Ontzak. Aurtengoan,

“Desafioaren errebantxa Goiburuko jaietan errepi-katzeko asmoa dute bi aldeek, abuztuaren hasieran”

ordea, aldaketak egingo dituzte. Desafio berriko partaideak Berrozpeko jolaslekuan bildu ziren aurreko larunbatean.

Dena esatera, Kaletxikikoak baino gehiago Goiburuko ki-deak sumatzen dira ilusioz eta gogoz gainezka. Eskarmentua pilatuta daukate San Estebango jaietan euren artean egin izan dituzten antzeko lehie- esker; lehenengo aldia dute, ordea, Andoaingo beste auzo baten kontra indarrak neur-tzen.

Desafioak ikusmina eragin du, eta Berrozpeko jolaslekua ikuslezu lepo jartzea espero da.

Lehiakideek jokoan afaria izango dute. Desafioaren errebantxa Goiburuko jaietan errepi-katzeko asmoa dute bi aldeek, abuztuaren hasieran.

Arratsaldeko 17:00etan hasita, Berrozpeko jolastokian girorik ez da faltako.

Hitzordu ugari ostiraletik igandera



Bazkariaren efemeridea gogoan hartu dute jai egitarauaren azalean.

Uztailak 3, ostirala:

- 19:00 Kandido eta txikitxoaren etorrera. Sardin jatea eta buruhandiak.
- 20:00 Eresargi abesbatza Berrozpeko kaperan.
- 21:00 Bokatafari herrikoia.
- 22:00 Monologoak: Javier Merino eta Miki de Cai.
- 22:30 Mus txapelketa azkarra Buruntza tabernan.
- 23:30 DJ Nemux eta karaokea.

Uztailak 4, larunbata:

- 10:00 Eskupilota topaketa Goikoplazan.
- 10:00 Plater tiraketa Azpikoloko harrobian.
- 12:00 Sagardo txapelketa hamabi sagardogileen parte hartzearekin.
- 12:00 Haur parkea.

17:30 Haur parkea.

18:00 Iñaxio Perurena harri jasotzailearen erakustaldia.

19:00 Pintxo potea txakolinarekin eta kabarekin.

20:00 Ontza elkartearen afaria.

22:15 Kaletxikiko danborrada. Entseguak ekainaren 30ean eta uztailearen 2an.

23:00 Berbena Camp.

01:00 Oilasko hotza txanpainarekin.

01:30 DJ Nemux.

Uztailak 5, igandea:

09:00 Diana.

10:00 Ontzako haur arrantza txapelketa Etxarrin.

10:00 Kaletxikiko mendi krosa, oinezkoen irteera.

10:45 Kaletxikiko mendi krosa, lasterkarien irteera.

12:00 Meza Berrozpeko kaperan, auzoko hildakoen alde.

12:35 Soka dantza Urki dantza taldeko kide eta nahi duten herritarrekin.

13:15 Gora Kaletxiki txarangaren emanaldia.

14:00 Auzotarren bazkari herrikoia, XXV. urteurrena.

16:30 Gora Kaletxiki txaranga.

17:00 Herri kirolak: Kaletxiki eta San Esteban auzoetakoak aurrez aurre.

Harri jasotzea, txingak, ingudea, lokotzak, zaku eta laia karrera eta pirrinka.

17:00 Gorritiren animaliak.

20:00 Apar festa. Jai amaitzeko Kandido eta txikitxoaren agurra.

ANDOAINDAR GUZTIEI JAI EZ GOZATZEKO GONBITEA LUZATU DIE

Emilio Iturriondobeitia, aurtengo Kandido

Emilio Iturriondobeitia izango da aurtengo Kandido pertsonaia, Kaletxikiko jaietan. Pozik hartu du izendapena, eta jai egunetan bertaratzeko gonbidapena luzatu die bai auzotik kanpo bizi diren

kaletxikitarrei, baita andoaindar orori: "Goikoplazatik aise jaisten zara aldapan beheara, Kaletxikira. Eta behin behean zaudenean, kosta egiten da aldapan gora abiatzea".

Zergatik uste duzu hautatu zaituztela?

Emilio Iturriondobeitia: Ez dakit, bada, ziur. Pentsatzen dut kontuan hartuko zutela auzoan bizi naizela eta jaiak estimatzen ditudala. Badira urte batzuk jai batzordekoek tentatu izan nautela. Hortaz, baietz esan diet azkenean...

Ba al dakizu zertan datzan Kandidoren zeregin protokolarioak?

E.I.: Pentsatzen dut jai hasierako eta bukaerako ekitaldietan ohorezko papera hartu behar du dudala, Txikitxoan ondoan. Formal eta irribarretsu ibili behar da egunotan, eta batik bat, gauak moderazioarekin hartu; gainerakoan, a ze itxura goizetik betaurreko beltzak jantzita azaltzea kalean!

Soka dantzarekin daukat zailantza: kalamidadea naiz arinarin eta fandangoa dantzatzeko orduan, eta ez dakit bada nola moldatuko naizen...

Zer esateko asmoa daukazu jaien irekierako diskurtsoan?

E.I.: Zaila dago originala izatea... Gogoraraziko dut jaiak guztiok goza dezagun antolatzen direla, eskerrak emango dizkiet antolatzaileei egiten duten ahaleginagatik... Hori bai, auzoan jaioa ez izan arren kanpotik hurbiltzen direnak azpimarratu nahi nituzke, ezinbestekoa baita beren presentzia Kaletxikiko jaiak arrakastatsua izan daitezen.

Jai zalea al zara izatez?

E.I.: Bai. Ez naiz jende andana zalea, baina badakit edozein jaiekin gozatzen; kontua, egitaraua apurka eta neurriko dosietan hartzen jakitea izaten da. Zarata eta estresarekin identifikatzen dira festak, eta egia da; hala ere, urte osoa daukagu lasaitasuna bilatzeko. Alde horretatik, iruditzen zait aurtengo San Pedro jaiei on egingo diela astebete atzeratu izanak.

Sanjuanak bukatu berrian,



Emilio Iturriondobeitia eta Ramon Zalakain DJ Nemux, jaietako bi protagonista nagusiak.

jendea nahiko asetuta geratzen baita; nagituta egoten da Kaletxikikoei puntua harrapatzen hasteko.

Gehiago edo gutxiago, eza gutzen ditut Andoaingo gainerako jaiak. Santakruzak daukat apartekotzat zalantzarik gabe, baina beste auzoei ere bisitatxoa egitea gogoko dut; opor egunetan etxean baldin bagara bai, gutxienez. Bestalde, Sanjuanak ahotan hartuta batzuen batzuek adierazi ohi duten topikoari egin nahi nioke aurre: ez da egia eskasak direnik. Esaterako, benetan magikoa da suaren inguruan gauean egiten den ospakizun osoa; ez dauka parekorik!

Zein duzu ekitaldi kuttunena San Pedro jaietan?

E.I.: Bat aipatzekotan, danborrada esango nuke. Urtean bitan ateratzen naiz Andoain, Peña Santa Krutz elkartearekin aurrea eta jai hauetan, ondoren. Badauka bere xarma: goitik beheara jantzi, elkartean bildu, kalera irten, txarangarekin bat egin eta danborra jo... Argi dago gazteentzat eta

"Gazteentzat eta emakumeentzat Kaletxikiko danborrada ekitaldi erakaragarria bihurtu dela azken urtetan, eta pozgarria da hori"

emakumeentzat Kaletxikiko ekitaldi erakaragarria bihurtu dela azken urtetan, eta pozgarria da hori.

Familiako lau kideek nola ospatu ohi dituzue jaiak?

E.I.: Familiari erabat egokitutako jaiak dira. Heldua lasai asko joan daiteke sagardo egunera, bere haurra puzgarrietan dibertitzen ariko dela badakielako.

Gure kasuan, etxeko balkoiara atera eta begi bistan jartzen zaigu jai gunea. Bertatik bertara daukagu jaiak, eta ez zaigu asko kostatzen eskaileratan beheara jaitea! Beharbada, bi alabek Lulak eta biok baino sakonago bizi ohi dituzte: zapia jartzeko ekitaldian parte hartzen dute, Gora Kaletxiki txarangako musikariak dira...

Nola ikusten dituzu San Pedro jaiak?

E.I.: Badaukate meritua jai batzordekoek, Patxik, Ramon Zalakainek eta besteek, diru eskasarekin hiru egunetako jaiak antolatzeko! Azken urtetan, eraldatzeko gaitasun azpimarragarria erakusten dute jaiak: proposamen berriak egiten dira, jaiei diseinu berria itsatsiz. Esaterako, ikusi dute agortu samar zegoela Ontza eta Batzokiaren arteko desafioa, eta Andoaingo bi auzoren arteko lehia planteatu dute. Goiburukoek jende asko erakarriko dute, eta igande arratsalde polita datorkigu.

Izatekotan ere, jaiak tren geltoki inguruko auzora zabalduko nituzke. Ez naiz formula majikoaren jabe, baina nola edo hala bertan bizi diren gazteak erakarriko nituzke bertara, festa ere euren dela senti dezaten. Ez da lan erraza, izan ere sentimendu hori pizteko, lehenbizikoz, Kaletxiki auzoa eta auzotarrak gertutik ezagutu behar baitituzu, eta errealtatea da herrira hurbiltzeko horko auzotarrek ez dutela

Kaletxikiko lotura egiten, Erroitz kaleko ibilbidea zeharkatu baizik. Bazkardo ere gehiago hartuko nuke kontutan; egia esan, bertako askok joera handiagoa eduki izan dute betidanik Kaletxikiko jaietara hurbiltzeko.

Zu noiztik zara kaletxikitarra?

E.I.: 1992an etorri ginen bizitzera, Lula (Garcia) emaztea eta biok. Jende abegikorra topatu genuen auzoan aurreneko egunetik, eta berehala sentitu ginen bertakoak. Harrezkero, bi kaletxikitar ekarri ditugu mundura: Uxue eta Eider.

Nortasun berezikoak omen zartete...

E.I.: Egia da, bai. Lekuak markatzen du. Gogoratzen naiz Uxuek, txikitari, nola adierazten zuen temati: "ni ez naiz andoaindarra, ni kaletxikiarra naiz". Horrekin dena esana da goela iruditzen zait. Bi kaletxikitarrek munduko edozein parajeetan topo eginez gero, berehala hasten dira Kaletxiki goraiatzeko, zenbateko nostalgia ari diren sentitzen...

Auzoan pertsona gutxi bizi gara. Gehiago izango dira Kaletxikitik urrun bizi diren kaletxikitarrek, bertan bizi direnak baino. Nolanahi ere, auzoak erakarmen handia du eta kanpoan bizi den kaletxikitar horrek nekez huts egingo dio jaien hitzorduari.

Kaletxikitar ez den horri, jaietara azal dadin, zer esango zenioke?

E.I.: Besterik ez bada ere, anima dadila sartu-irten bat egitea edota pote bat hartzea. Horixe esango nioke.

Goikoplazatik aise jaisten zara aldapan beheara, Kaletxikira. Eta behin behean zaudenean, kosta egiten da aldapan gora abiatzea.

Ez pentsa alferkeria kontua denik, edo gauza psikologikoa denik. Jaiekin gozatzen ari zaren seinale izaten da, besterik ez.

SAN JUAN JAIK ANDOAINEN

San Juan eguneko bertsoak

San Juan jaietan ohikoa da bertso saioa Goikoplazan, goi mailako bertsolarien eskutik. Ion Belokik gidatuta kantuan aritu ziren Alaia Martin, Agin laburu, Andoni Egaña, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbio. Azken bi hauek Andoaingo eta Hernaniko San Juan jaietz kantari jarri zituen gai-jartzaileak.

Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbio: Aitor, Maialen Hernaniko Sanjuanak gorai patu eta gorai patu ari da zu berarekin joan zaitezten Andoaingo Sanjuanak utzita. Azkenean konbentzitu zaitu eta hau ez da Maialenek kontatu zizuna.



Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio kantuan. Atzean, Ion Beloki gai-jartzailea eta Agin Laburu.

Lujanbio:

Mila bider esanda etorri nerekin, azkenean gu biok Tilos plaza erdin. Goizeko bostak ta honek aguantatu ezin. Zu lasai gaua ez da hasi baino egin.

Mendiluze:

Lehenengo etortzeko bazen nahiko duda, milaka lagun biltzen diren ingurura. Gaua hasi baino ez, horixe da muga. Nerekin bukatzea nahi ote duzu ba?

Lujanbio:

Tilosetako plazan hona biok batu. Ez dizut entenditu ta arren barkatu.

Bi kontu diferente zurekin bukatu, edo asperran asperrez Aitor akabatu.

Mendiluze:

Bietarako ere faltako zait gutxi. Hobe trago bat jo ta kontu horiek utzi. Garesti omen dago ezin poltsa itxi, ez dakit oraindik ez naiz barrara iritsi.

Lujanbio:

Esaten dezu dena dela gaur hutsuna, ta dena asperdura ta juerga iluna. Hara filosofo on batek esan zuna kontua da lekuaz zuk e(g)iten dezuna.

Mendiluze:

Ta lekuaz zer egin liteken halare, datorrena egiten da bestenaren jabe. Hernani onena omen zen zalantzarik gabe, baina Hernanin zenbat hernaniar daude?

Lujanbio:

Igual gehiago izan zan lehengo denboran baina hernaniarra ia hemen nor dan. Jende asko ez dago nahiz hau egon modan, atera kontu Andoain nola egongo dan.

Mendiluze:

Ikustera etorri zu gure herrira, nola egin liteken

festa ona neurria. Nola egongo den galdera hori da, hemen aspertu denak han egongo dira.

Bertsolari guztiak: Urteko egutegian zein da zuentzat egun berezia?

Colina:

Egutegira begira jarri ta ibiltzen gara zer suma. Nik urriaren hogeian beti dadukat ospakizuna. Askorentzat da ETak borroka armatua utzi zuna, baina niretzat mundu hontara etorri nintzen eguna.

Lujanbio:

Bertso munduan uda ta negu ez da ez kontu berbera.

Negu partean afaitan gabiltz eta zinetik zinera, baina ekainaren 13 buelta, San Antonio gainera, manga motzetan lehen saioa ta gure udaren hasiera.

Egaña:

Zarauztar batek egin behar du euskal jaiaren aukera, irailaren bederatzia eta egun bakarra bera. Iritsi nintzen egunen batean lau mozkor harrapatzera. Orain zahartu naiz, lehenbizikoa harrapatuta etxera.

Mendiluze:

Izan liteke nere semeen urtebetetze eguna, edo gaurko hau andoaindarrei asko gustatzen zaiguna. Baina urtean egun bakar bat zertan bereizi laguna? Berezia ez da eguna baizik hartaz egiten duguna.

Laburu:

Bereiz nitzake urtebetetze ta gabonetako fetxak, baina opari asko dakarzki egutegin numero beltzak. Otsailaren hamalau hori bereizi nahi nuke behintzat, berezia da niretzat eta nere admiradoreentzat.

Martin:

Egun beltzen bat badut gogoan, egin ez nuena lorik. Ahaztezenen bat berez ez duna ia ahazteko askorik. Baina bat daukat bereziena ta aitortzea dagokit, otsailaren hogeita hamarra baino bereziagorik.

RURAL FOC IKUSKIZUNAREKIN AMAITU ZIREN SAN JUAN JAIK ANDOAINEN



Jai Batzordea eta gobernu taldea pozarren agertu dira

San Juan jaien balorazio ona egin dute



Aurtengo haur danborrada, Kaleberritik Gokoplaza aldera.

Amaitu berri diren San Juan jaietako buruzko balorazioa onartu zen aurtengo "Rural foc" ikuskizuna aurrekoak baino eskasagoa izan dela. Ekitaldiz ekitaldi egin zen erreposoa, eta ez zen bereziki txarrerako azpimarratzeko gertaerarik aipatu. Zuzendu beharreko detaile txikiak, gustu aniztasuna, ikusle goaren erantzuna... horietan izan ziren hizpide izan dakoak. Erakarmen gutxi izan duten ekitaldiak ere aipagai izan zituzten; horien artean, ekainaren 19ko kontzertu eta dantzaldia Nafarroa plazan, San Juan eguneko dantzaldia edota Sound System Jaialdia (hilaren 21a).

Berrikuntzen artean zegoen bote luzeko partida erakustaldia, eta nahiz eta herri kirolatan baino jende gutxiago hurbildu, ontzat eman zuten ia

Jai batzordearen balorazio bileran aho batez onartu zen aurtengo "Rural foc" ikuskizuna aurrekoak baino eskasagoa izan dela

desagertutzat zegoen euskal kirola erakusteko saiakera.

Bestalde, aho batez onartu zen aurtengo "Rural foc" ikuskizuna aurrekoak baino eskasagoa izan dela. Ekitaldi horrekin jarraituz, bilerako partaide batek gogoratu zuen Correfocaren aldeko apustua egitearekin batera, adin nagusiko herritar gehienek su artifizialak ikusteko eduki ohi duten gogoia zapuztu egiten zela. Bestelako arrazoiak ere azaldu ziren bileran, kaleko su ikuskizunaren alde: gazte jendearen gogokoa dela, eta su artifizialak ez bezala, iraupen luzeko ikuskizuna dela (45-60 minutu).

UDALAREN BALORAZIOA

"Sei egunez dantza, musika eta festan murgilduta izan gara. Egitaraua ekitentz josita etorri da aurtengoan, horietako asko, herriko eragile eta elkarten partaidetzari esker aurrera eramanez izan direnak.

Kultura batzordeko ardura-dunekin eta Udaltzaingoko ordezkariekin hitz egin ondoren, istilu isolaturen bat salbu, jaiak erabateko normaltasunez igaro direla adierazi nahi dugu. Ostiralean hasi eta asteazken arte, festa izan da nagusi herriko kaleetan eta herritarren artean, eta hori oso poztekoa da. Azpimarratzekoa da egunez zein gauzez egon den partaidetza handia; haur, heldu, edadetu eta gazte, guzti-guztiak batu dira festara, Andoainek bere esentzian gordetzen duen alaitasuna eta parte-hartzerako jarrera adieraziz.

Udal gobernuaren balorazioa oso positiboa da San Juan jaietako dagokionez".

Futbol zelaietako oihua



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Erabakitze eskubideari buruz behin baino gehiagotan idatzi dut zutabe honetan. Aiurritarrok, agian, asperturik zaudete behin eta berriro gai honi buruzko hausnarketak irakurtzeaz. Baina hil honen 21ean futbol zelaietan ospaturiko jai erraldoiaren ondoren, badirudi beharturik gaudela ideia batzuk plazaratzera, ezen beti baita interesgarria iritziak, kritika baikorrak, hausnarketak egitea... korranteak eraman ez gaitzan.

Jaialdia formari buruz ikusgarria izan zen, eta prestakuntzan parte hartu zutenak herritarren eskerrona merezi dute, nire behintzat bai. Eta lerroetatik doakie. Futbol zelaiak gainezka eta festa giro bikaina, eta oihua ezin ozenagoa, nahiz eta aulki batzuk hutsik geratu. Aurreko urtean giza-katea izan zen, jendetsua dudarik gabe; eta aurtengoak jendetsua aldetik seguruenik gaitzitu egin du.

Gure gizarte, ordea, oso anitza da eta horrelako jai baten errebundizio inguruan iritziak ere desberdinak izaten dira eta izan dira. Komunikabide desberdinetatik zenbait jaso ditut eta ekarpenak aberatsak dira. Niri, beti bezala, zalantzak ere sortu zaizkit eta lehengoak ere nire barnean diraute. Zenbaiten iritziak, hurrengo urratsa erabakitze eskubidea bozka bidez gauzatzea litzateke. Beste norbaiti entzun nion iritzi saio batean, bera euskalduna, alegia erabakitze eskubidea independentzia zela, eta, alderdi horretatik, erabakitze eskubidearen aldeko bidea ez zuela batere garbi ikusten. Jakina, asko eta asko izan dira, eta ni ados nago, behin eta berriz errepika duten erabakitze eskubidea eskubide demokratikoa dela, eta ez duela, derri gorrez, independentzia esan nahi. Zenbait hedabide, bestalde, betiko moduan muturra sartu eta manipulatu iaioak, beti dabilta bai elkarrizketetan bai iritzi artikuluetan dena nahasi nahian. Galdera guztietan erabakitze eskubidea independentziarekin nahasten dute asmo garbiarekin, noski. Urkulluk Legebiltzarrean oposizioa zenbait erantzunez bere iritzia eman du. Jakina, Lehendakari gisa, erantzun neurtuak eman ditu, horren aldekoa da baina urrats seguruek eta legediaren barnean nahi lukeela gaineratuz. Ez lego gaizki kaleetako oihu hau Parlamenturaino iritsiko balitz eta oihartzuna lortuko balu. Ez dut erraza ikusten baina gai honen inguruan beste hausnarketa bat da. Antolatzaileek dioten bezala seduzitzen joan beharko dute ahalik eta alderdiek onar dezaten.

Halere, lehen esan dut nik nire zalantzak ditudala eta entzundako beste zenbait iritzi entzunda, zalantzak areago

Herritarrok joera handia dugu jai erraldoietan parte hartzeko, baina oso gutxi gure barne iritziak azaleratzeko eta kontrajartzeko

tu egin zaizkit. Esaterako, entzun dut zenbait herritar erabakitze eskubidea gauzatzeko medioak jarriko direla; beste batzuk esan dute hurrengo urratsa bozka ematez izan dela eta bide horretatik... Nik, herritar gisa, galdera egiten dut: zein galdera egingo didate? Zein oinarri juridikorekin egingo didate? Eta, batik bat, erabakitzeak aukera askoren artekoa eskatzen duenez, galderak bat baino gehiago izan beharko dute aukera dezadan; aukerazterik ez badago, alta, betikoan ginateke. Gustatuko litzaidake norbaitek erantzun bali. Komunikabideetan, bestalde, ez dut ikusten gaiaren inguruan eztabaidarik, ez eta hitzaldirik, pedagogiarik ere ez. Aiurri bertan, eta eskualdean badira mugimendu horretan sartuta dabilzanak ez dut aurkitu iritzi artikulua bat ere gai honen inguruan. Herritarrok joera handia dugu jai erraldoietan parte hartzeko, baina oso gutxi gure barne iritziak azaleratzeko eta kontrajartzeko; eta mila bider esan dut baina Aiurri bezalako aldizkari bat eduki, eta tristea deritzot ez erabiltzea gure iritziak errespetatuz adierazteko. Labur bilduz: bi urteotan egin diren jaialdi erraldoi horien aldekoa naiz, eta beharrezkoa dirar; ados nago Erabakitze Eskubidea eskubide demokratikoa dela eta bere horretan defendatu behar dela; baina ez dut ikusten oraindik garbi nola gauzatu den edo gauzatzeko horren bidea. Horregatik eskatzen dut eztabaida eta iritzien kontra jartzea.

ALKATE ETA ZINEGOTZIEN SOLDATAK

Azken Aiurri hauteskundeetako itun dantza bukatutzat eman nuen. Baina entzundakoa entzun da, izan dira, batik bat, Estatuko zenbait lekutan, non alkate eta zinegotziak irabaziko duten soldata hitz egin duten. Giza mareen plataforma bidez boterea lortu duten esan dute beren soldata jaitziko dutela. Kontxo, hemen, soldatei buruz ezer ez edo ezer gutxi. Hori bai, entzun dut Arrigorriagakoak, lehen batzar orokorrean bere soldata igo duela eta ez gutxi.

Ez lego gaizki herritarren krisiaren ondorioz sufrizten ari direna kontuan hartu eta, politikok ere keinutxo bat egiten balute. Bartzelonan, Madriden eta Valentzian eta zenbait tokitan egin dute. Agian, gu desberdinak gara!

UDAKO JAIEN JARRAIPEN ZABALA



ARGAZKIAK, BIDEOAK, JAI EGITARAUAK,...



KIROL ALBISTEAK

Gipuzkoako txapeldun izan zirenekoa

Berrogeita hamar urte bete ziren astelehenan, Euskalduna futbol taldeak Gipuzkoako kopa irabazi zuenetik jubenil mailan. Talde andoaindarrak inoiz eskuratu izan duen kopako titulu bakarra da, jubenilen goren mailan gutxiarik. Koldo Ibañez jokalaria gogoratu digu egun historiko hura; finaleko gora beherak eta gainerako zertzelada xebreak eman dizkio Aiurriri.

Euskaldunak Zarautzen aurka jokatu zuen finala, Lasarte-Oriako Michelin zelaian. Ibañezek egin digu kronika. "2-1 garaitu genuen Zarautz. Aurrelari gisa, erdian jokatu nuen, eta niri egokitu zitzaidan bi golak sartzea. Lehenbizikoa, ezker aldetik erdiratzen espeziala zen Agustin Arrietak bidali zidan baloia, eta boleaz heldu nion bete-betean, sareetara bidaliz. Eskuadratik sartu zen baloia, zerura joan zitekeen bezala. Zarautzarrek berdinketa lortu zuten aurrerago, eta azken minutuetan gure atezaina, Arrizabalaga, kalera bidali zuen epaileak (portzierto, Gurutzeta famatua eta polemikoa zen hori, istripuz hil zena gerora). Bada, atezainik gabe, Joxe Mari Ozaeta jokalaria bete behar izan zuen postu hori. Partiduko azken minutuan, egundoko geldiketa egin zuen mutilak!".

Luzapeneko tartean, jokalaria bat gutxiagorekin, Euskalduna Zarautzen menpe geratuko zela zirudien arren, kontrakoa gertatu zen; hazi egin ziren urdinak, eta aukera ugari egin zituzten golen bat edo beste sartzeko. "Horretan ari ginela, Arrietak ezkerretik baloia zentratu zuen beste behin, eta nik gola buruz sartu ahal izan nuen".

Ramontxin Ruiz zen taldeko entrenatzailea. "Instituzio bat izan da Euskaldunak; futbolaz asko zekiena zen, eta haren eskarmentuak zerikusia handia izan zuen garaipenean".

Andoaindik zaletu asko hurbildu ziren Lasartera finala ikustera, eta haiek futbolarietara batera itzuli ziren herrira. Ezin alaiago itzuli ere, kopa eskuetan zutela. "Udal agintariek harrera ofiziala egin zigiten udaletxean; Espin uste dut zela orduan alkate. Sanjuanak



Koldo Ibañez, 1965ko ekainaren 29an Gipuzkoako lehen kopa irabazi zuen hamakakoa eskuetan duela.

ziren herrian, eta hortik atera kontuak nola ospatu zen! Izugarriko zaletasuna zegoen herrian futbolarekiko, aisialdi bakarretakoa zen garai haietan, eta jakina, heroien antzera hartu gintuzten".

ORAIN 50 URTEKO FUTBOLA

Partidaren inguruko beste zenbait xehetasun kontatu dizkigu Ibañezek, orain 50 urte futbolak zertan zetzan argitu dezaketena.

"Finalurrekoa, hiruna amaitu genuen; horietatik bi neuk sartu nituen. Penaltietara erabaki behar eta, Ramontxinek Corcuera izendatu zuen arauko bostak jaurti zitzaiz. "Hik alde berberera bota bostak!"

agindu zion. Halaxe egin zuen Corcuera, eta bostak zasta!, ateko sareetan amaitu zuten. Denbora guztian, aurkarietara atezaina ezin sinetsirik igarri genuen, gizajoak, jaurtiketa aldiko, uste izan baitzuen Corcuera kontrako aldera botako zuela. Harrigarria izan zen!".

Euskaldunak oso talde ona zeukan jubeniletan, sasoi hartan. "Gipuzkoan, gutxi ziren garaitzen gintuztenak, Añorga, Lengokoak, Sanse eta beste bi edo hiru talde kenduta. Egin kontu, aurreko denboraldian, 1963-1964an, koparen antzeko txapelketa antolatuta zuten Gipuzkoako federazioak, eta finalera iritsi ginen orduan ere. Atotxan jokatu genuen, eta

galtzaile irten ginen. Tartean ziren, besteak beste, gerora Espainiako lehen mailako ligan Reala, Santander nahiz Betisekin jokatu zuten Jose Ramon Esnaola, Jose Antonio Corcuera eta Agustin Arrieta".

Euskaldunako talde mitiko hartan goleatzailea izan zen Koldo Ibañez. "Altuera handikoa nintzen, 1,84 metroko mutila. Buruz nahiko azkarra nintzen, baina traketsa ere bai zangoekin; ez dakit oso ondo nola, baina golak sartzen nituela da kontua. Hiru urtez jardun nuen Euskaldunako jubeniletan eta gero erregional mailako Villafrañcako fitxatu ninduen; egia esan, Ezeiza, Arrieta eta hiru-erok joan ginen Ordiziara, bi taldeekin egin zuten truke baten parte izan ginen. Hirugarren mailara igotzea lortu genuen hurrengo denboraldian, Euskalduna zegoen mailara. Etorri zen denboraldi berria, eta orduan, Ramontxinek Hernanira joateko tentatu ninduen. Nolanahi ere, soldaduskako ordua iritsi zitzaidan eta futbola uztea erabaki nuen. Harrezkero, federatuek kanpoko torneoetan eta lantegien arteko txapelketetan segitu nuen jokatzeko, ez gehiago".

BILBOTARRA

Jatorriz herrikoak izan ohi ziren Euskaldunak jokatzeko zuten jokalaria garai haietan, eta atipikoa da Koldo Ibañez kasua. "Nire familia San-

turtzin bizi zen, eta nik hamasei urte nituela etorri ginen guztiok Andoainera bizitzera. Aita etorri zen lehenbizi, Inquitex lantegiaren eraikuntza lanetan parte hartzeko bidali baitzuten hona. Familia atzetik heldu zen. Bertako tailer batean lanean hasi nintzen; Pablo Alkorta, Euskaldunako atezaina, nire lankideetako bat zen. Hark, Lutxanako jubeniletan jokatuakoa nintzela jakin bezain pronto, Etxeberrietara eraman ninduen, jubenilen entrenamendu batera".

"Bilbotarra" zen eta izaten segitzen du oraindik askorentzat Andoainen Ibañezek. Detale horri buruz zer esanik ba ote daukan galdetuta, irribarrean marrazten dute bere ezpainen: "Oso harrera ona egin zidaten lehen egunetik Euskaldunak, eta betirako lagunak egin nituen. Gipuzkoa mailan sutsuak izatearen fama ondo irabazita zeukaten Etxeberrietako zaletuek ere primeran hartu ninduten. Orduan ez zegoen gaur egun dagoen lehia hori. Athleticen ez bezala, Reala geroztik historiala loriatsua joan da pilatzen, eta ondorioz, Andoainen ugari ziren athleticen. Gehiegizko ezin erama, azken urteetako kontua izan da. Batzuei kosta egiten zaie gauzak bereiztea, eta Athleticen egiten duen edo egiten ez duen guztiaren errudun jotzen naute. Ez da lan erraza horiekin moldatzea!".

OROITZAPENAREKIN, POZEZ ETA PENAZ

Poztasuna eragiten dio Euskaldunaren historialean mugarriztat jo daitekeen gertakizuna gogora ekartzeko. Horrekin batera, baina, pena pittin bat ere sentitzen duela aitortu du Koldok: "Aipatzeko moduko kirol lorpen handitzat jo beharko litzateke Andoainen, baina ahaztu samar dago gauza".

Argazkia eskuetan, azkenik, balentria hura gauzatu zuten protagonistak azpimarratu nahi izan ditu banan-banan. "Horietatik bost, Andoainen bizi gara". Nolanahi ere, hiru pertsona aipatu nahi izan ditu modu berezian: "Gure artean betirako joanak diren Joxe Mari Zendoia, Joxe Mari Ozaeta eta Ramon Ruiz".




Zutik, ezkerretik hasita: Arrizabalaga, Zendoia, Mendoza, Velasco, Irazu Txokolo, Ozaeta eta Ramon Ruiz Ramontxin entrenatzailea. Makurtuta: Corcuera, Calleja, Ibañez, Ezeiza eta Arrieta.



KIROL ALBISTEAK

Esnal Gipuzkoako onenekin



Mikel Esnal Andoaingo igerilariak Gipuzkoako Udako txapelketan hirugarren postua lortu du junior-absolutoen mailan, batzaz besteko emaitza guztiak kontutan harturik. 50 librean eta 50 tximeletan lehengo postua eskuratu zuen; 23:90 eta 26:05ko denborarekin, hurrenez hurren. Bestalde, 100 librean 5. postua lortu zuen, 52:29ko denborarekin.

Bi marka pertsonal eta taldeko errekor berriekin gustura geratu zen igerilaria: "Txapelketa ona izan zen. Gustura egin nuen igeri eta sentsazio oso onak izan nituen nire baitan". Azpeitian jokatu zen txapelketa honetan, guztira 29 marka pertsonal eta taldeko 11 errekor berri egitea lortu dute Burretaldea IKT taldeko igerilariak.

UKEren denboraldi amaiera

Ekaina iristearekin batera Urnieta Kirol Elkarteko eskubaloia atalak denboraldiari amaiera borobila eman zion, jarduera ezberdina antolatuz. Lekaion lehen mailako eskubaloia jokalarien arteko solasaldia egin zuten, Iñaki de Mujikak gidatua. Besteak beste, euren bizipenak azaltzen aritu ziren Matxalen Ziarsolo, Esther Arrojeria, Egoitz Carracedo, Iker Serrano, Aitor Urbarte eta Fernando Bolea.

Hurrengo egunean eskubaloiko lehen mailara igo den Zarautzeko Aiala taldeko Martin Larrañaga entrenatzaileak hitzaldia eskaini zuen kiroldeian, entrenamenduak prestatzeko oinarritzko lezioak eskainiz. Antolatzaileentzat luxu bat izan zen bere parte hartzea. Ildo horretan, aipatzekoa da Tolosako entrenatzaile eta Gipuzkoako federazioko zuzendari tekniko Alex Noguesek eskainitako beste hitzaldia ere. Asteburua iristen ari zen,



Lehen handball txapelketa antolatu zuten Urnietan.

eta ekainaren 19an lehengo street handball txapelketa antolatu zuten Plazido Mujika plazan. Larunbatean, berriz, jokoak eta afora egin zuten UKErena familia handi bat dela erakutsiz. 200 lagun bildu ziren bertan eta aipamen berezia jaso zuten kirol lorpenak lortu dituzten kadete neskek eta jubenil mutilek.

Afalostean, aipamen polita

egin zieten infantil mailan hasi eta senior mailaraino iritsiko diren taldekideei. Hauexek dira: Ane Oruna, Oihane Sanchez, Leire Erasun, Irati Zinkunegi, Iosu Pagola, Beñat Senperena, Iñigo Perez, Ander Berrotaran eta Eneko Urruzola.

Abuztuaren amaieran itzuliko da eskubaloia Urnietara, denboraldi berriko lehen prestateta saioekin.

Bote luzea erakustaldia



Zubietta, Oiartzun, Larraul eta Andoaingo Aritz Eskudero pilotariak parte hartu zuten.

San Juan jaietan Andoaingo 400. urteurrenak bere tokitoxoa izan zuen. Atzera begira jarrita, tradizio luzekoa den bote luzea erakustaldia eskaini zuten hainbat pilotarik. Ulertzen errazak ez diren arauak Antton Mendiza-

bal adituak azaldu zituen megafoniatik. Bertan bildu ziren ikusleei azaldu zenez, nonbait Andoaingo artzainek Eteneta inguruan jokatzeko ohitura zuten. Pilota jokoen artean jarduera zaharretako da.



Kaletxikiko krosa igandean

Igande honetan goizeko 10:45etan irtengo da Miguel Mari Pagolaren omenez egi-

ten den lasterketa. Herri-krossa.com webgunean izena eman daiteke.

GAZTELEKU PILOTA ESOLAKO GAZTETXOEN UDAKO LEHEN EGONALDIA GOIZUETAN



Andoni Alvarez eta Unai Loiarde alkatea pilota eskolako gazteekin.



Gaztetxoek Julen Urruzola pilotari profesionalaren bisita jaso zuten.

Ez ohiko jarduerak burutu dituzte udako egonaldian: eskuetarako takoak egin, zesta puntan aritu, neskekin palan jokatu... Horrez gain, errekarera ere joan ziren. Udalekue-tan ohiko denez, gaubelak ere egin dituzte. Pilota eskolan ahozkoatasunari garrantzia handia eman diote betidanik, eta gaubelen bitartez jendarean hitz egitera bideratu dituzte. Ekimena ondo irten denez, datorren urtean ere errepikatze asmoa dute.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

UZTAILAREN 3TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Azokak

Andoain

- **Bigarren eskuko azoka.** Izena emateko epea zabalik. 10:00-14:00. Zumea plaza. Uztailak 4, larunbata.
- **Stock azoka.** Salkinek merkatariei dei egiten die uztailaren 18an egingo den azokan parte har dezaten. Informazioa: 637 955 030. itziarirurzun@hotmail.com

Odol-emaileak

Andoain

- 18:30-20:30. Osasun etxea. Uztailak 7, asteartea.

Urnietan

- 18:30-20:30. Anbulategi zaharra. Uztailak 13, astelehena.

Gaztegunea

Urnietan

- Udako ordutegia: Goizez: 10:30-13:00. Idiazabal, 13 behea. 943 333 973. Irailaren 15era bitarte.

Udalbatzarra

Andoain

- Agintaldi berriko lehena. 19:00. Udaletxea. Uztailak 13, astelehena.

Aisialdia

Urnietan

- **Uda Gaztelekuan**
Uztailak 2 osteguna: Zinemara irteera, Errenterriara.
Uztailak 3 ostirala: Hernaniko igerilekuetara irteera.
- **Udabentura, Gipuzkoako txokoak**
Irteerak egunero uztailaren 13tik 17ra eta 20tik 23ra: Informazioa: Gaztelekua. 943 333 972.

Liburutegia

Andoain

- Udako ordutegia, Udal liburutegian:
Uztailaren:
Astelehenetan, 10:00-13:00
16:30-20:30.
Asteartetik ostiralera, 10:00-14:00.
Abuztuan:
Astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00.
- Udako ordutegia, fonoteka-bideotekan:
Uztailaren:
Astelehenetan, 10:00-13:00
16:30-20:30.
Asteartetik ostiralera, 10:00-14:00.
Abuztuan itxia.
CD edo bideoak liburutegian eskatu behar dira, eta egun batetik bestera eman-go dituzte.

Jaiak

Andoain

- Kaletxikiko jaiak.
Uztailak 3, ostirala:
19:00 Kandido eta txikitxo-en etorrera.
20:00 Eresargi abesbatza Berrozpeko kaperan.
21:00 Bokatafari herrikoia.
22:00 Monologoak.
22:30 Mus txapelketa azkarrak Buruntza tabernan.
23:30 DJ Nemux.

Egitarau osoa, astekari honetan 6-7 orrialdeetan.

Lehiaketa

Urnietan

- Sanmiel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Lanak entregatzeko epea uztailaren 17an bukatuko da. Lanak Udaletxeko Bertan bulegoan aurkeztu behar dira. Oinarriak: Urnietan.eus. 943008000 urnietakoudala@urnietan.eus

Deialdia

Urnietan

- Udak eta Misio batzordeak sinatu duten hitzarmenaren arabera, herriko gazte batek Wucrora (Etiopia) joateko aukera izango du. gazteinformazioa@urnietan.eus

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Uztailaren 5ean gure aitak urteak beteko ditu. Zorionak etxekoan partez eta muxu handi bat!

URNIETA

ZORIONAK



Irunek uztailaren 6an, 7 urte beteko ditu. Milaka muxu printzesarentzat!!! Etxekoan partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Pasadenekainaren 29an Lidek 6 urte bete zituen. Muxu handi bat, etxekoan partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ane Lopezek 2 urte beteko ditu uztailaren 31n. Zorionak sorgina! Muxuak, etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ekainaren 20an, **losu** Guirado Alcora gure ttikia jaio zen. Ongi etorria eta muxu goxo pila. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Eñaut Berrueta Aznarrek 3 urte beteko ditu uztailaren 27an. Muxu potoloak aitona eta osabaren partetik. Ondo pasa uda!!

ANDOAIN

■ **ZORION AGURRAK AIURRIN**
Whatsapp: 619 163 537.

Mintza kantu poteoa



Ekainaren 18an Andoaingo AEK eskaltegiko ikasleak eta Mintzalaguneko kideak Zumea plazan elkartu ziren. Pintxo-pote berezia egin zuten, taberna ezberdinetan kantatuz: "Primeran pasa ge-

nuen eta urtean zehar ikasten aritu direnei, zein mingaina astintzeko geratzen direnei, euren ahalegina txalotzeko diploma ere eman genien. Urrian berriz ere elkartuko garelakoan, mila esker!".

Protesta festa Andoainen



"Iruzurrak jarraitzen du" lemapean, Stop Desahucios ekimenak protesta festa antolatu zuen aurreko larunbat

arratsaldean. Jaiaren sustatzaileak antzerkia eta guzti egitera animatu ziren. Iru-dian antzerkiaren une bat.

Bazkaria Bertxin elkarteak deituta



Patata tortila lehiaketa egin zuten Bertxin elkarteak.



Bertxin elkarteak deituta bazkaria egin dute.